

RIS3 Euskadi espezializazio adimentsuko euskal estrategiari buruzko prestakuntza-programa

Innobasque agentziak doako prestakuntza-programa eskainiko du, RIS3 Euskadi (<http://ris3euskadi.eus/eu/zer-da-ris3-euskadi/>) espezializazio adimentsuko euskal estrategiak eskaintzen dituen aukeren, laguntzen eta jardunbide onen inguruan. Prestakuntza-eskaintza hori "RIS3 strategiaren lurralde-hedapena" (<http://ris3euskadi.eus/eu/lurralde-zabaltzea/>) izeneko ekimenaren parte da, zeinaren bidez azken bi urteetan 25 ikastaro eskaini zaizkien bitarteko agenteen 400 ordezkari baino gehiagori; azken horiek inguruko enpresa eta ETE-ek RIS3 Euskadi estrategiarekin lotutako aukerak helarazi dizkiete.

Programa horren xedea da bitarteko agenteen esku jartzea ezagutzak, kontzeptuak eta tresnak, euren eragin-esparruko ETE-ek helarazteko eta RIS3 strategiaren alorrean lotutako lankidetzako berrikuntza-proiektuak sustatzeko.

Zein gaietako prestakuntza eskainiko da?

- Kontzeptuen, aukera-eremuen eta teknologien inguruko ezagutzak, baita RIS3 espezializazio adimentsuko strategiaren 7 alorretako tresnak ere.
- Berrikuntzaren eta I+G delakoaren kontzeptuak eta tresnak.
- Merkatuko berrikuntzaren eta negozio-ereduen berrikuntzaren kontzeptuak eta kasu praktikoak.
- Enpresen berrikuntza-profilak egiteko eta lankidetzako proiektuak aurrera eramateko metodologiak.
- Horizon Europe programak eta I+G+b arloko beste Europako programa batzuek eskaintzen dituzten aukerak identifikatzeko kontzeptuak eta tresnak, Euskadiko enpresen parte-hartzea sustatzeko.

Nori dago zuzenduta?

ETE-en gertuko **lurralde-eragileei**: tokiko garapen-agentziak, lanbide-heziketako zentroak, klusterrak, merkataritzaganbarak, patronalak, etab.

Zein arlotan?

RIS3 Euskadi estrategiak I+G eta berrikuntzako zazpi alor identifikatu ditu: fabrikazio aurreratua, energia, biozientziak/osasuna, **elikadura**, hiri-habitata, kultura- eta sormen-ekosistemak eta -industriak, balio eta potentzial handienak edukitzeagatik.

Elikadura (<http://ris3euskadi.eus/eu/espezializazio-esparruak/elikadura/>)ren arloan, RIS3 estrategiak honako lehentasun hauen alde egiten du:

- Elikadura osasuntsua - dieta pertsonalizatua.
- Elikagaiak ekoizteko sistema berriak.
- Bereziki ahulak diren biztanleentzako garapen gastronomiko berriak: Haurrak eta seniorrak.
- Kalitatezko elikadura segurua. Hautemate- eta kontserbazio-teknologia berriak.
- IKTak ekoizpen-, logistika- eta komertzializazio-prozesuetan gehitzea.
- Kontsumo-joera berrietara egokitutako erabilgarritasun-prestazio berriak dituzten elikagaiak.

Prestakuntza-saioa urte honetako uztailaren eta abenduaren artean eskainiko da , webinar-formatuan.

Interes-adierazpenak

Innobasque agentziako kideei eskatzen zaie prestakuntza-programan parte hartzeko interesa erakusteko, inprimaki hau beteta ekainaren 22a baino lehen:

<http://analytics-eu.clickdimensions.com/cn/abeyr/InteresRIS3> (<http://analytics-eu.clickdimensions.com/cn/abeyr/InteresRIS3>)

Informazio gehiago

Sentsibilizazio-jardunaldiak diseinatzeko oinarriak (http://ris3euskadi.eus/wp-content/uploads/2020/05/SENTSIBILIZAZIO_JARDUNALDIAK_OINARRIAK.pdf)

Prestakuntza-programan parte hartzeko oinarriak (http://ris3euskadi.eus/wp-content/uploads/2020/05/PRESTAKUNTZA_PROGRAMAN_OINARRIAK.pdf)

Análisis de la evolución de los ámbitos de especialización RIS3 entre 2014-2018

(https://www.innobasque.eus/uploads/attachment_files/pcti2030-analisis-ris3-5ed62e1cc2a4b.pdf)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)